



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

### **HIRI HONDAKIN BILKETA ZERBITZURAKO KARGATZAILEEN LAN POLTSA BAT SORTZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRIAK**

#### **1.- Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea hiri hondakin bilketa zerbitzurako kargatzaileen lan poltsa bat sortzea da, Mankomunitateak dituen aldi baterako premiei lan kontratuekin erantzuteko.

Lan poltsa hau Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batek erabil dezake, Debagoieneko Mankomunitateari hala eskatzen badio eta honek baimentzen badu.

#### **2.- Eginkizunak**

Lanpostuaren eginkizunak honako hauek izango dira:

- Hondakin bilketarako ibilgailuak dituen kanpoko mekanismoak erabili.
- Edukiontzia kargatu igogailuan eta bere lekuan utzi berau deskargatutakoan.
- Beharrezkoa balitz, zabor poltsak eskuz kargatu ibilgailuaren tolban.
- Zamakariaren iritziz, hondakina dagoen baldintzatan onargarria ez denean itxaron txoferraren agindua jaso edo bertan uzteko.
- Zerbitzua bukatutakoan kamioia garbitu.
- Garbigune ibiltaria trasladatu lekuz leku, eta Garbiguneko langileari lagundu hondakinen deskargan.
- Garbigune ibiltariaren mantenua egin (garbiketak, konponketa sinpleak...).
- Zerbitzua ematean hondatutako edukiontzien mantenua egin.
- Txoferraren aginduei kaso egin.
- Bere nagusiak ematen dizkion zereginak, betiere postuaren edukiari buruzkoak baldin badira.

#### **3.- Hautagaien baldintzak**

Onartuak izan eta, hala badagokie, oposizio-lehiaketan parte hartzeko, eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen hautagaiak ondorengo baldintza hauek bete behar dituzte:

- α) Europako Batasuneko kide diren estatuetakoren baten nazionalitatea izatea, edota Europako Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko Itunen

aplikazioaren arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion Estaturen bateko nazional izatea.

Baita ere parte har dezake Europako Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko nazionalen ezkontideak, zuzenbidez banatuta ez badago, baita horren ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude, ondorengo hauek hogeita bat (21) urtez beherakoak izan edota zaharragoak izan, baina haren kontura bizi baldin badira.

- β) 16 urte beteta izatea, eta nahitaezko erretirorako gehienezko adina gainditu gabe izatea.
- χ) Eskola ziurtagiriaren jabe izatea.
- δ) B gidabaimena izatea.
- ε) Lanpostuko eginkizunak betetzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea.
- φ) Herri Administrazioen zerbitzura lan egiteko debekupean ez egotea zigor-espedienteen ondorioz, edo eginkizun publikoak betetzeko gaitasungabetu edo inhabilitatuta ere ez egotea.
- γ) Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak —Herri Administrazioen zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzkoak— ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasuneko kausa legalen batean sartuta ez egotea, baina lege-arau horrek berorrek aipatzen duen aukera-eskubidea erabil dezakete dagoeneko postu publiko batean daudenek edo bateraezina den jarduera pribatu batean dihardutenek.

#### **4.- Eskariak aurkeztea**

Oposizio-lehiaketan onartuak izateko eskariak Mankomunitateko lehendakariari zuzendu behar zaizkio, eta 2013ko maiatzaren 31ra arteko epean aurkeztu behar dira, ondorengo baldintzak betez:

- α) Deialdiaren 3. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituztela agerrarazi behar dute hautagaiek, eskariak aurkezteko epea bukatzen den datari buruz betiere.
- β) Hautagaiek lehiaketa-aldian balioetsiko diren merituei buruzko datuak agerrarazi behar dituzte. Ez dira balioetsiko eskarian zehazten ez direnak.

Eskariak, eta horien eredia Mankomunitatean emango da, behar bezala beteta eta NA-DNIren fotokopiarekin batera, Mankomunitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Arrasateko Nafarroa Etorbideko 17an, edota azaroaren 26ko 30/1992 Legeak —Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoak— 38.4 artikuluan ezartzen dituen moduetakoren batean.

## **5.- Aurkeztu beharreko agiriak**

a) Eskariarekin batera aurkeztu beharrekoak:

- NA-DNIren fotokopia, edo Europar Batasuneko beste estatu bateko kideen kasuan, nortasuna eta nazionalitatea egiaztatuko dituen agiriaren fotokopia.
- Hala badagokio, egiaztaturik duen hizkuntz eskakizunaren frogagiria.

b) Aukeratze-prozesuan aurkeztu beharrekoa:

Eskarian alegaturiko merituen egiaztagiriak gero aurkeztuko dira, Epaimahai Kalifikatzaileak adieraziko duen eran eta epean.

Agiri hau oposizio-aldia gainditzen dutenei bakarrik eskatuko zaie.

c) Aukeratze-prozesua bukatzen denean aurkeztu beharrekoak:

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko 3. oinarrian eskatzen diren betebeharren egiaztagiriak gainditu duten hautagaiek bitarteko izendapena baino lehen aurkeztu beharko dituzte, Mankomunitateak eskatzen dizkienean.

d) Agiriak alderatzea:

Parte hartzeko eskatzen diren baldintzak nahiz merituak egiaztatzeko, agiri orijinalak aurkeztu behar dira beren kopiekin Mankomunitateko Erregistrora ekartzen direnean bertan alderatzeko, salbu NA-DNIren kopia, hori eskariarekin batera entregatu behar baita. Kopia orijinalarekin alderatzea Mankomunitatean bertan egingo da, eta oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko bakarrik.

## **6.- Hautagaien onarpena**

Eskariak aurkezteko epea bukatzean, hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko ditu Mankomunitateko lehendakariak. Zerrenda horiek Mankomunitateko iragarki-taulan emango dira argitara eta web orrian, [www.debagoiena.net](http://www.debagoiena.net), eta 7 laneguneko epea utziko da ez-onartzea eragin duten akatsak zuzendu eta hutsuneak betetzeko, edota zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira. Erreklamazioak egiten badira, onartu edo baztertu egingo dira beste ebazpen baten bidez, eta honela onarturiko behin-betiko zerrendak lehen adierazitako moduan jarriko dira jende aurrean.

## **7.- Epaimahai Kalifikatzailea**

Honela osatuko da oposizio-lehiaketako Epaimahai Kalifikatzailea:

### **Lehendakaria**

- Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko Ustiapen arduraduna edo honek eskuordeturiko teknikaria.

### **Mahaikideak**

- Mankomunitateko herri-bide zerbitzuen arduraduna edo honek eskuordeturiko teknikaria.
- Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko beste bi teknikari

### **Idazkaria**

- Mankomunitateko idazkaria edo, hala balegokio, bertako Administrazio Orokorreko teknikari bat.

Hautaketa probatan eta Epaimahai Kalifikatzailearen bileretan, Ingurumen Batzordeko zein Gobernu Juntako kideak egon ahal izango dira; baita langileen ordezkariak ere.

Epaimahaiko kideak Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu eta izendapen hori Mankomunitateko iragarki-taulan eta web orrian emango da argitara, onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera..

Epaimahaiari komenigarri iruditzen zaion probetan, gai bakoitzean aditu diren aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.

Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legeak 28. artikuluan ezarritako egoeretakoren bat ematen bada Epaimahaiko kideengan, kide horiek ez dute esku hartu behar —Mankomunitateko lehendakariari jakinaraziz— eta hautagaiek ere ezetsi egin ditzakete.

### **8.- Oposizio-aldiko ariketak**

Oposizio-aldiko ariketetarako deiak, Epaimahaiaren ebazpenak eta prozedura honen ondoriozko gainerako jakinarazpenak Mankomunitateko iragarki-taulan eta web orrian emango dira argitara.

Ekitaldi bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hauek behar bezala justifikatuta badaude eta Epaimahaiak askatasunez horrela irizita.

Oposizio-aldian ondorengo ariketak egingo dira:

Lehen ariketa: Euskera proba. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. 1. hizkuntza eskakizunaren mailako proba bat egingo da euskararen ezagutza baloratzeko. Oposizilogileek 1. hizkuntza-eskakizunari dagokion ezagutza gainditu beharko dute.

Ariketa honetan GAI edo EZ GAI emango da, eta proba honek barne ondorioak izango dituenetz soilik, Mankomunitateak ez du inolako ziurtagiririk luzatuko.

Proba hau egitetik salbuetsita egongo dira Euskal Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aplikatzeko indarrean dauden arauetan aurreikusitako titulu edo agiriren bat dutela egiaztatzen duten oposizilogileek.

Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea.

Proba honek bi zati izango ditu:

1. Proba teorikoa: idatziz erantzungo zaio I eranskineko gai-zerrendari buruzko galdera ugariz osatutako galde-sorta bati. Zati honen gehienezko kalifikazioa 5 puntukoa izango da, eta gutxienez 2,5 puntu lortu beharko dira gainditzeko.
2. Proba praktiko idatzia: lanpostu honen zereginekin eta I eranskineko gai-zerrendarekin loturiko proba praktikoa. Zati honen gehienezko kalifikazioa 10 puntukoa izango da, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Ariketa honen bi zatiak batera egingo dira, baina lehen zatiko proba teorikoa gainditzen ez dutenei ez zaie bigarren zatiko proba praktikoa zuzenduko. Kanporatuta geldituko dira.

Hirugarren ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea: proba psikoteknikoak.

Postuaren egitekoak betetzeko behar diren gaitasunak hautagaiek ba ote dituzten ikusteko eta hautagaien teknika- eta giza profila lanpostura egokitzen den ala ez ebaluatzeko probak izango dira.

Ariketa honen gehienezko kalifikazioa 10 puntukoa izango da, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

## **9.- Lehiaketa-aldia**

Merituen lehiaketa aldia ez da kanporatzailea izango, eta hor lortutako puntuazioa ere ezingo da kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

Epaimahaiak ondorengo merituen balioetsiko ditu, eskaria egiterakoan alegatu eta Epaimahai Kalifikatzaileak eskaturiko unean behar beste egiaztatu baldin badira.

- a) Lanbide-esperientzia hondakin bilketako kargatzaile bezala. 0,25 puntu balioetsiko da lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun), gehienez 3 punturaino.

Lanbide-esperientzia hau Gizarte Segurantzak egindako frogagirien bidez eta egindako lanen ziurtagirien bidez egiaztatuko da.

## **10.- Epaimahaiaren proposamena**

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa lehiaketa eta oposizio aldietan lorturiko puntuen batura izango da, eta honela ezarriko da azken puntuazio-ordena,

Merituen eta ariketen kalifikazioa bukatu ondoren, eta azken puntuazio-ordenaren arabera, Epaimahaiak argitara emango du probak gainditu dituzten hautagaien zerrenda.

Epaimahaiak Mankomunitateko lehendakaritzari emango dio zerrenda hori aldi baterako lan poltsatzat erabil dezan.

Lanean hasi aurretik, oposizio-lehiaketan parte hartzeko 3. oinarrian eskatzen diren baldintzen egiaztagiriak Mankomunitateko Idazkaritza Nagusian aurkezteko eskatuko zaie prozesua gainditutako zerrendan dauden hautagaiei.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuren batean izan ezik, proposaturiko hautagaiek ez badute eskaturiko dokumentazioa aurkezten edo, aurkeztutakoa aztertu ondoren, baldintzaren bat ez dutela betetzen ikusten bada, ezingo dira horiek kontratatu, eta bertan behera geratuko dira berari buruzko jarduketa guztiak, faltukeriagatik izan dezakeen erantzukizunaz gain.

#### **11.- Gorabeherak**

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena du edozein zalantza argitzeko eta oposizio-lehiaketa ongi gauzatu dadin beharrezko erabakiak hartzeko, Oinarri hauetan ezarri gabeko guztian.

#### **12.- Aurka egiteak**

Deialdi honen, beronen oinarrien eta ondorengo administrazio-egintzen eta Epaimahaiaren jardunaren aurka, abenduaren 26ko 30/1992 Legeak —Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuta— eta Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzen duen Legeak ezarritako kasuetan eta eran egin ahal izango da.

**EGINBIDEA.- Oinarri hauek Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zituen 2013ko maiatzaren 16an egindako bilkuran.**

**Arrasaten, 2013ko maiatzaren 17an.  
IDAZKARIA**

**Izpta.: Belén Txintxurreta**

## 1. ERANSKINA

1. GAIA.- Debagoieneko eskualdea; ezagutza geografikoa.
2. GAIA.- Hondakin bilketa selektiboa; atez ateko hiztegia.  
([http://www.debagoiena.com/Ingurumena/Hiztegia\\_eu.pdf](http://www.debagoiena.com/Ingurumena/Hiztegia_eu.pdf) )
3. GAIA.- Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko instalazio eta zerbitzuak.  
( [http://www.debagoiena.com/Ingurumena/2009\\_txostena/2009Txostena1.pdf](http://www.debagoiena.com/Ingurumena/2009_txostena/2009Txostena1.pdf) )